

Noaia!!!



Sohütako ikastolaren
aldeko kanpaina



Dudiperen tokia beteko du aurrerantzean

Usurbil Zero Zabor taldeak

txitxarro

erretegia

- eguneroko menua
- asteburuko menua
- karta

*Etan zaituz
eta ondo para
gira haberenean!!*



txikiardi auzoa · iguarte kalea, 11 · 20170 · usurbil

T. 943 36 99 64

URDAIRA

Sagardotegia

Sagardo naturala
Abenduak 18 BARRIKOTEA
20.00h Urdairan
asteleroak ibira

Aginaga
943 37 26 91

Otar-Goxo

Elkagaiak

Gabonetako berezitasunak
eta otarrak prezio ezin hobean



Harategiko berezitasunak

Txahal azpizuna
Behi azpizuna
Esneko arkumea
Txerrikumea
Antxumea
Kapoia
Pularda, ehiza,
Rosbeef, entrekota (1kg)...

Urdaitegiko berezitasunak

Foie frexkoa
Ahate konfita,
Mikuít
Txatka naturala
Izozkina
Mahatsaz betetako pintada
Budinak
Iberiko aukera zabala

Fruta denda berezitasunak

Ananak
Gaztainak
Mahatsa
Orejoiak
Kiwiak
Bertako barazkiak
Fruten selekzio paregabea



Zubiaurrena, nº2 • T. 943 36 55 81 • 20170 Usurbil

Albisteak iruditan!!

Mintzalagun taldekoak, eguraldiari aurre eginez

Ikasturte berriarekin batera, Mintzalaguneko kideak elkartzen hasiak dira berriz ere. Programa honen helburua argia da: euskaraz hitz egiteko aukera gehiago sortzea, hau da, euskaldunon arteko elkar ezagutzatza (euskaldun zaharrak eta berriak) bultzatzea eta hizkuntza gaitasuna eta erabiltzeko ohitura sustatzea. "Azaroaren 21ean, igandea, Mintzalagunekoek ederki egin zioten aurre eguraldi kaxkarrari hamaiketako eder batez. Asmoa Usurbildik atera eta Txokoalden barrena Aginagaraino joatea bazen ere, eguraldia tarteko, kotxeak hartu eta zuzenean jateari ekin zioten. Ageri denez, adin guztietako jendea bildu zen eta ederki pasa genuen, bapo jan eta edanez", aditzera eman digutenez.



MINTZALAGUNEN KIDEAK, AURREKO IGANDEAN EGINDAKO IRTEERAN.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
Telefono zenbakia: 943 36 03 21

E-posta: elkartea@noaua.com

www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbietta, Begoña Rekondo, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Maider Makazaga, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai, Belmonte Auzo Elkartea eta Udarregi ikastola.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

UHINGA ELEKTROMAGNETIKOEN MAPA _____ **5. OR.**

ZERO ZABOR TALDEA OSATU DA _____ **6. OR.**

PATXI SEGUROLARI ELKARTASUNA _____ **8. OR.**

ERLE EGUNA, JAI GIROAN _____ **10. OR.**

SAN SILVESTRE LASTERKETA _____ **12. OR.**




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Josue
Igeltseritza:
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

BORDATXO
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Patri Jatetxea
K/nagusia 14. © 943 362 725



ARITZ GORRITI

Jai egunetan lan? Lan egunetan jai...

Erabaki al duzu... Zer plan duzu asteburu luze ehonetarako? Bost jai egun aurretik, mila proposamen. Egutegiari begira jarrita, egunotako bi, gorritz margotuta. Primeran! Baina zer ospatu behar dugu ba egunotan? (lanera ez joateaz gain, noski).

Hasi begira, eta... Orion ezik (han Nikolas eguna ospatuko dute eta) astelehena, organikoak etxe atarira ateratzeko eguna eta... Aiba! Baita Konstituzio espainolarena ere. Egutegiko orrialdeak aurrera eta atzera, eta askotan kasurik ere egiten ez zaien halako zenbat jai egun... Erreformak behar dituen etxearen moduan, bertakotzeko "ukitu" dezenteren beharrea da bai egutegia.

Berrantolatzeke saiakera egin dezagun ba; Olentzero Aita Noelen pare jarri badugu abenduaren 25ean, bertako hainbat ohiturek (inauteriak, udalerrietako jaiak...) jai egun maila eskuratu badute, aitzak eta amek beren jai egunak badituzte, baita joandakoak oroitzeko ere... Adibidez, norberak urtebetetzea ospatzeaz gain, zergatik ez dago jaio direnak zoriontzeko egun bat? Ideia "ero" bat besterik ez da, baina denok identifikatuak sentitu gaitzke jai egun horrekin. Datorren urterako iragarria dagoen

Euskadi Egunarekin trukatu nuke. Ezin ukatu, proposamenak urriaren 25a jai egun izendatzea baino zentzu gehiago duenik.

Bizitza, natura... Ttak! Bigarren proposamena; ekaina hasieran Ingurumenaren Nazioarteko Eguna. Orriak aurrera, orriak atzera... Abuztuaren 15eko jai egunarekin truka dezagun (asko oporretan izango dira edo gara eta). Eta urriaren 12ko Espainiako hiriburuko tanke eta militar festaren orde... Kito!, laster ospatuko den giza-eskubideen eguna gorritz margo dezagun. Abenduaren 10a jai beraz.

Egutegia gorritz margotzeko motibazioa anitza eta zabala izan daiteke. Baina zer falta zaie gure santu santez hornituriko egutegiari? Euskalduntzea agian? Erabili dezagun ba erreferentzia moduan, Seaskak kaleratu ohi duen egutegia. Egutegiak uste baino joko gehiago ematen du bai, planak egiteko, bizitza antolatzeke... Eta lan egunez gain, jai egunen ezagutza handiagoa izateko. Planteatu akatsak aurkitzeko joko bat balitz bezala eta denbora pasa ederra izan liteke... Kontxo! Abenduak 3 ditu gaur, Euskararen Eguna. Ostirala da, eta lanera...

Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Ugaitz Agirre - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregerai

Ika-mika!

Egunak... Urteak..., finean mendekua helburu

Hogei egun ezer jan gabe egon ostean, Patxi Segurolak gose greba bertan behera utzi zuen joan den larunbatean. Espulstioa baliatuz, Polizia espainolaren esku utziko zutelakoan (ondo dakigun bezala horrek daraman arriskuarekin), borroka-mota gogor hori aukeratu zuen bere egoera salatzeko.

Azaroaren 30ean epaitegi frantsesak ezarri zion zigorra beteta, aske atera beharko luke. Baina, beste behin, usteak ustel! Bi egun falta zirela, Audientzia Nazionalak epaile frantsesari estradizio eskaera egin dio eta onartzen duen edo ez erabaki arte, esperean segi beharko du.

Patxik hamaika urte darama espetxean.

Lehen urteetan jada, bi estradizio-eskaera egin zituen Madrilek baino, orduan, Parisko epaitegiak ez zuen oinarri aski ikusi Espainiako auzitegiaren eskakizuna onartzeko. Oraingoan ez dakigu zer gertatuko den, epaile frantsesen jarrera eta jokamoldeak izugarri gogortu baitira ditxosozko "kolaborazioa" dela medio. Azken urteotan euskal militantei ezartzen dizkieten zigorrak nola handitu diren begiratzea besterik ez dago.

Baina epaitegi frantsesaren erabakia gorabehera, agerian geratu da, berriz ere, Estatu espainolaren jokaera mendekatzaila. Urte hauek guztiak itxaron ditu, maltzur, zelatan, zain, egunak eta urteak pasa-

tzen utziz, azken unean Patxiren eta bere senide eta lagun bihotzetan sortutako askatasunaren itxaropena eta ilusioa zapuzteko.

Mendekaldia da, ez dago beste hitzik. Egia esateko, jokaera horrek ez gaitu harritu. Bai, ordea, gure helburu behinena, presoak etxean izatea, alegia, berrindartzeko. Ahalegin horretan, gainera, herritar andana dugu bidelagun, azken egunetan Patxirekin elkartasunez herrian izandako mobilizazioek erakutsi duten bezala. Urtarrilaren 8an, Bilboko kaleetan agerian geratuko den bezala.

Usurbilen Nahi Ditugu elkarte

TAXI
607 92 87 70
943 00 44 83
Angel (24h) USURBIL

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
943 370 008

ALIPROX
Kale Nagusia 10
943 361 182
USURBIL

ERRAZKIN
Igeltsoitza S.L.
Tel.: 649 435 470
Faxa: 943 372 679
K/ Nagusia 47, Behea A.
20170 USURBIL

“Neurketa eta azterlan gehiago egingo dira”

Airearen kalitatea eta kutsadura elektromagnetikoari buruzko bileran esandakoa

Aire kalitatea, kutsadura elektromagnetikoa eta hauen eragina aztergai zuten bilera burutu zen joan den azaroaren 25ean Udarregi ikastolan. Udalak deitu zuten ekitaldian, alor honetan burutu den lan-keraren emaitzak aurkeztu ziren. Ezohiko edota kezkatzeko moduko daturik ez dute erakutsi azterlanok. Halere, lanketa honekin jarraitzeko asmoa du Udalak aurrerantzean ere.



UDARREGIN EGIN ZEN AURKEZPEN IREKIA, AURREKO ASTEAN.

Hitzaldira, Ezker abertzalea, Aralar eta Alkarbidetako udal ordezkariak gerturatu ziren, gai honen inguruan Atxegaldeko bizilagun talde batek aurkezturiko idatzien eragileak, edota baita auzoko zenbait bizilagun ere, beste herritar batzuen artean.

Legegintzaldian zehar alor honetan burutu den lana aurkeztu zuten jendaurrean, udal ordezkari eta azterlanak burutu dituzten enpresetako ordezkariak. Aire kalitateari dagokionean, EHU-ko Kimika Fakultatearekin eta Buruntzaldeko udalekin elkarlana burutu du Udalak. Azken urteotan kamioi bat jarri izan da neurgailu gisa. Bestalde, kutsadura iturriak identifikatu eta aire kalitatea, airera isuritako partikulen ezaugarriak aztertzeko, bi estazio kontrol finkatu ziren; bat, Urbil ondoan, eta bestea, Elhuyar enpresaren egoitzan. Ezohiko emaitzarik ez dute jaso, funtzionamenduan egon ziren hilabete eta erdiko epean.

Laster, 2007ko datuak

Bestalde, herrian azken urteotan eman diren minbizi kasuekiko kezka dela eta, elkarlanean jardun dute urteotan Udalak eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak. 1986-2006 urte arteko datuei begira, ez da ageri datu kezagarriarik. Falta direnak, 2007tik gaur egunera arteko emai-

tzak dira. Bilkuran argitu zutenenez, Osasun Sailak bizpahiru urte behar izaten ditu datuak ofizial eta behin betiko bihurtzeko. Ondorioz, hilabete gutxi barrurako espero dira, 2007ari dagozkion minbizi kasuen datuak eta aurreragorako, azken hiru urteotakoak.

Kutsadura elektromagnetikoa ere aztertu da lanketa honen barruan. Udallerriko puntu sentikorrenak hain zuzen, transformadore eta mugikorren antenak eta wifi-en eragina. Berriz ere, legediak onartutako parametroen barruan daude jaso diren emaitzak.

Lanketak etenik ez

Emaitzak aurkeztuta, aurrera begira jarri ziren hizlariak eta Udaletik mezu argia helarazi zuten alkateak; aurrerantzean ere alor honetako neurketa eta azterlanekin jarraituko dute.

Honenbestez, udalerrian burutzen diren hainbat jardueren kontrol lana egingen jarraituko du Udalak aurrerantzean. Baita kutsadura elektromagnetikoari lotutako, udalerriko puntu sentikorren azterketa sakonagoa. Pauso berriak ere ematekoa da Udala. Alkateak iragarri zuenez, telekomunikazio ekipoen hiri-gintza baldintzak, udal ordenantza batean jasotzeko asmoa dute. Azterlana burutu duen enpresatik jakinarazi zutenenez,

etorkizunean alor honi lotutako neurketa zehatzagoak burutu nahi dituzte. Aurrekoan uda partean egin bazuten, oraingoan neguko hilabeteetan burutu nahi dute.


Herritarrek, kezkatu

Ekitaldi amaieran, herritarrek ehartu zuten hitza zituzten kezka azaldu eta zalantzak argitzeko. Orain arteko azterlanen emaitzak ohikoak direla ikusita, Atxegaldeko zenbait bizilagunek konponbidea eskatzen zuten, zerbait gehiago egiteko beharra, ke eta usain txarren aurrean. Udaletik euren esku dagoen guztia egiteko prestutasuna agertzearekin batera, dituen eskumenengatik Eusko Jaurlaritzak gehiago egin deza keela uste dute.

Minbizi kasuekiko interesa ere agertu zuten bertaratu ziren zenbait herritarrek. Errolda kontuan hartuta, eta hiltzeko arrazoiak ugariak izan daitezkeela ahaztu gabe, azken urteotako heriotz-tasaren batz bestekoan gorabehera nabarmenik ez dela egon adierazi zuten udal ordezkariak.

Informazio gehiago eta gaiari buruzko dokumentazioa: usurbil.net

BENTA TABERNA
Oilasko erreak
Ogitartekoak
San Ignacio 1, behea
USURBIL 943 36 93 05


ARRANDEGIA
PELLO
Puntapax Kalea,7
Tif 36 21 64
USURBIL


ELEKTRIZITATEA
943 36 50 95-609 06 81 11
izagirreletrizitate@hotmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

Andoni Errazkin
Xukin
igeltseritza orokorra
Barne eta kanpoko lanak
USURBIL
663 08 76 71 • 943 24 34 65

Usurbilek ere badu Zero Zabor taldea

Herrian Zero Zabor norabidean politika berriak aplikatu daitezzen saiatzea, herritarren artean hondakinekiko arduraren indartu, atez ateko bilketa hobetu, murrizketa eta berrerabilpen ekintzak bultzatu, Gipuzkoa Zero Zaborrekin elkarlanean jardun, edota errausketa zein erraustegiaren inguruko lobby-en interesen aurka borrokatzea. Horiek dira joan den asteburuan aurkeztu zen Usurbil Zero Zabor (UZZ) taldeak aurrerantzean jorratuko dituen lan ildo nagusiak.

Artzabalen burutu zen ekitaldian talde berria sortzeko zergatia argitu zuten prentsurrekoak eskaini zuten herritarrek. "Dudipe bilgunea UZZ-n bilakatzeak, Gipuzkoa Zero Zabor mugimenduaren inguruan geroz eta herri gehiagotan sortzen ari diren Zero Zabor taldeekin sintonian aritzeko beharrari erantzuten dio", adierazi zuten bilgune berriko kideek irakurritako adierazpenean. Honenbestez, Gipuzkoa Zero Zabor mugimenduko eskaerekin bat egiten du Usurbilen aurkeztu berri den taldeak; herrialde mailan, atez atekoa zabaldu, Zero Zabor eredia bultzatu eta moratoria eskatzearekin hain zuzen ere.

Sistema zirkularra

Aurkezpen ekitaldian, Usurbil Zero Zabor taldeko ordezkariak gogorarazten zuten, Zero Zabor ereduak, hondakinekiko kezkarik izan gabe "ustiatu-konsumitu-bota" lerroan oinarrituriko sistema lineal batetik sistema zirkularra igarotzea ahalbidetzen du, baliabide natural gehiago ustiatu beharrik gabe, ekoiztako produktuak birziklatu eta berrerabiltzera alegia. Etenik ez duen



PASA DEN LARUNBATEAN AGERRALDIA EGIN ZUTEN ARTZABALEN. ERLE EGUNEAN, ARGAZKI ERRALDIOIA ATERA ZUTEN (AZALEAN JASO DUGUNA).

ziklo horretarako, bilgune berriak beharrezkotzat jotzen dute atez ateko bilketa sistema.

Euren esanetan, hala, "Zero Zabor edo sistema zirkularrekin ohiko zabortegien eta erraustegiaren mehatxua desgertzen da".

Sozializazio lana

Zabaltzen doa Zero Zabor inguruko taldea herrialdean barrena. Hernanin Zero Zabor sortu zen lehenik, gerora, osatu dira Zero Zabor talde gehiago; Hernanin, Zarautzen, Donostian, orain Usurbilen eta asteazken honetan aurkeztekoa zen Orion.

Hedapen prozesuak aurrera jarraituko du. Azken hilabeteotan, Zero Zabor mugimenduko eragileek hainbat hitzaldi eskaini dituzte; besteak beste, Anoetako Gaztetxean, Aretxabaletan, Elgetan edo Groseko Kortxoenea Gaztetxean. Abendurako hitzartuak dituzte beste hainbat bilkura ere; hala nola, Oñatin, Ibarra, Arrasaten eta Astigarragan.

Atez Ate Dudipetik, Usurbil Zero Zaborrera

Pauso berri hau ematea ibilbide luze baten emaitza izan da. Erraustegiaren aurkako mugimenduan jaiotzen zena, geroago alternatibak landu eta atez ateko bilketa martxan jartzera igaro eta otsailean burutu zen herri galdeketaaren testuinguruan, Atez Ate Dudipe bilguneak jarraipena eman ziona. Gerora, aurkezpen saioan argitu zuten, "Dudipe bilgunean balantzea egiteko egindako batzarrean, fase horren bukaera baieztatu genuen". Hondakinen inguruan lanean ziharduten beste taldeekin harremanetan jarri eta sortu zen uda aurretik, Gipuzkoa Zero Zabor mugimendua. Eta horri lotuta, aurrerantzean lanean jardungo duen herriko taldea hau izango da; Usurbil Zero Zabor. Herritarrei bilguneekin harremanetan jarri eta ekarpenak egitera deitzen diete.

LATAILLADE    **ITURGINTZA**

GASA BEROKUNTZA MANTENIMENDUA ETA KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Ariztitxo 8. behea · 943 363 348 · 609 888 021

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE

Obaba kalea 29 · ASTEASU
943 69 68 52 · 620 800 186

Zubietako errauste plantaren egitasmo proiektua baliogabetu egin du Donostiako Epaitegiak

San Marko Mankomunitateko lehendakari ohi Imanol Azpirozek aurkezturiko helegite bat aintzakotzat hartu du Donostiako epaitegiak, eta ondorioz, Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoak hartuta dituen Zubietako erraustegiari lotutako hainbat erabaki baliogabetuta daude egun. Gipuzkoako Ezker Abertzaleko ordezkariak prentsurrekoan iragarri dutenez, epaia behin betirako exekutatzea eskatuko dute.

2009ko ekainaren 2an Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoak buruturiko bilerako gai zerrendan jorratu eta bozkatu zituzten hartu beharreko hamabost erabakietatik hamahiru baliogabetu ditu orain, Donostiako Epaitegiak. Modu honetan, epaileak San Marko Mankomunitateko lehendakari ohi Imanol Azpirozek aurkezturiko helegitea aintzat hartu du eta arrazoia eman dio.

Kaleratu den epaia ordea, ez da irmoa. Horregatik, epaia behin betirako exekutatzea eskatuko dute, Azpirozek berak, Ezker Abertzaleko Partzuergoko kide ere diren Iñaki Errazkin eta Eneritz Maizekin batera joan den azaroaren 26an Donostian eskaini zuten prentsurrekoan iragarri zuten.

“Inpunitateari stop”

Errauste plantaren bultzatzaileek egitasmoak atzera bueltarik ez duela dioten arren, Errazkinen esanetan, epai honen ostean, “kinka larrian dago”. Eta gaineratzen dutenez, haren aldekoak urduri daude eta presa dute, “arriskuan ikusten dute planta”. Gipuzkoako Ezker Abertzaleko ordezkarien esanetan, Foru Aldundiak gai honetan egindako lana,



IRUDIAN, ENERITZ MAIZ, IMANOL AZPIROZ ETA IÑAKI ERRAZKIN.

“modu traketsan egina dagoela” baieztatu du epaiak.

Gogorazten dutenez dena ez da posible, “batzuetan inpunitateari stop esan behar zaio”. Inpunitatea, euren esanetan, Foru Aldunditik ezin direlako erabakiak hartu, herri borondateari muzin eginez, proiektuak inposatuz, arauak hautsiz, ingurumenarekin jolastuz edota herritarren osasuna arriskuan jarriz. Gaineratzen zuten, krisialdi garaiotan, ezta dirua arinki xahutu edota hondakinak erreta, baliabideak direla jakinik.

Epaia exekuzioaren inguruko erabakia hilabete gutxirako espero dute Ezker Abertzaleko ordezkariak. Epaia behin betirakoa balitz, bertan behera geratuko lirakeke egun baliogabetuta dauden hamahiru puntuak. Ondorioz, horrek 2009ko ekaineko bilera hartan hartu ziren erabakien aurreko garaira bueltatzea suposatuko luke.

Foru Aldundiari moratoria eskatu zioten, Zero Zabor programak bultzatzea, baita elkarlanera deitu eta hondakinen kudeaketaren inguruko herritarren parte hartzea sustatzea galdegin ere.

Baliogabetutako erabakiak

Donostiako Epaitegiak baliogabetu dituen erabakietako batzuk:
-Zubietako erraustegiko proiektua eta araudi proposamena.

-Artzabaleto lurzorua hartzeko beharra dagoela adierazten duen espedientea, Aldundiari lurzoru horiek desjabetzeko laguntza eskatzea eta lehendakaria beharreko izapideak egiteko gaitzea, aipatu erabakia eraginkorra izan dadin.

-Erraustegiko kostuen %33ko ekarpena egin dezan, Foru Aldundiarekin sinatu beharreko lankidetzaren hitzarmena.

-Estatutuak aldatzeko proiektua.
-Txingudi Mankomunitatea kide izateko, estatutuak aldatzeko espedientea.

-Hiri hondakinak botatzeko Urteta, Sasieta eta Lapatx zabortegeien jabe diren mankomunitateekin izenpetzekoak diren lankidetzaren hitzarmenak.

-2008ko aurrekontua likidatzea.

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL



Javier Orbegozo

·ITURGINTZA
·GASA ·BEROKUNTZA
659 602 789

Erreka-Ixiki 13, 3. esk USURBIL 943 37 29 37

Audientzia Nazionalak

Patxi Seguiolaren estradizioa eskatu du

Azaroaren 8an hasi zuen gose greba bertan behera utzi du

Frantzian jarri zioten espetxe zigorra beteta, azaroaren 30ean aske behar zuen Patxi Seguiola herritarrak. Espainiako Auzitegi Nazionalak orde, aginagarrak estraditatzeko eskatu du. Ondorioz, eskaera horrekin zer egin erabaki arte espetxean jarraitu beharko du Seguiolak. Artean, asteburuan bere aldeko elkartasun mobilizazioak burutu dira.

Patxi Seguiolak espetxe zigorra betetzeko egun gutxi falta zirela burutu du estradizio eskaera Espainiako Auzitegi Nazionalak. Ondorioz, azaroaren 30ean aske geratu beharrean, espetxean jarraitu beharko du aginagarrak, Frantziako epaitegiek aipatu eskaerarekin zer egin erabaki arte.

GOSE GREBAN IZAN DA

“Estradizioarena lehenago jakinarazi izan balioke Patxi ez luke gose grebarik egingo”

Amnistiaren Aldeko Mugimenduk berri eman duenez, datozen egunotan espetxerik aldatuko dute. Albiste honen ondorioz, larunbatean, azaroaren 8az geroztik hogeitaz egunetako burututako gose-greba bertan behera utzi du Seguiolak.



ORDUBETERO TXANDAKATUZ, UDAL ORDEZKARI, HERRI ERAGILE ZEIN HERRITAR UGARI BILDU ZEN LARUNBATEKO MOBILIZAZIOAN.

Lehendik ere, beste bitan eskatu dute “Ximio” estraditatzeko, baina eskaerok atzera bota izan dituzte frantziar epaitegiek.

Espetxe politika “ankerra”
Amnistiaren Aldeko Mugimenduk, beste behin, “espetxe politikaren ankerkeria” salatu du. Espetxe zigorra betetzear zela jakinik, Seguiolari erabakiaren berri azken egunotan eman diotela azpimarratzen dute, lehendik beste hainbat euskal preso politikarekin egin izan duten moduan. Hain zuzen, zehazten dutenez, “hau lehenago jakinarazi izan balioke Patxi ez luke gose grebarik egingo, estradizioak epailetik epailera burutzen direlako”, eta Espainiaratu ostean, polizien esku gelditzeko arriskurik ez litzatekeelako egongo.

Elkartasun ekitaldi ugari

Patxi Seguiolari elkartasuna adierazteko mobilizazioek ez dute etenik. Hilabeteko azken ostirala izanik, joan den azaroaren 26an presoen eskubideen alde burutu zen elkarretaratzearekin batera, hamabi orduko mobilizazioa burutu zen larunbatean Seguiolaren alde.

Eguraldi txar eta hotzari aurre eginenez, goizeko hamarretan hasi eta gaueko hamarretan arte iraun zuen elkarretaratzean parte hartu zuten, gaur egungo eta atzoko udal ordezkariak, baita hainbat herri eragile eta herritarrek ere.



Kutzaren aipamena jaso du Mainer Errastik

Urte garai honetan, gipuzkoarren karrerako espediente akademikorik onenak saritu ohi ditu Kutzak. Aurreko astean burutu zen XXXIV. edizioari dagokion sari banaketa, Kutzak Donostiako Andia kalean duen egoitzan. Mainer Errasti izan zen sarituetako bat.

2009-2010 ikasturtean ikasketak bukatu eta Gipuzkoako Fakultate, Unibertsitate-Eskola eta Goi-Mailako Eskoletako bakoitzean espediente akademikorik onena lortu duten 42 gipuzkoar saritu dituzte. Tartean, aurreko edizioetan bezala, usurbildar bat saritu dute; oraingoan, Mainer Errasti Amiano.

Gizarte eta Kultur Antropologian



PEDRO MIGUEL ETXENIKE ZIENTZIALARIAREN ESKUTIK JASO ZUEN AIPAMENA, PASA DEN ASTEAN EGIN ZEN EKITALDIAN.

Lizentziatua da usurbildarra. Bere karrerako espediente onena izateaga-

tik, 1.400 euroko saria jaso zuen, Kutzaren eskutik. Zorionak!

Gabonetan opartzeko aukera aparta!!!

943 36 82 06
Zubiaurrenea 3, baxua

FRANTSES KLASEAK

Hou la la!

Beste talde bat osatzen ari gara
"ZERO" mailatik **ASTEARTETAN**
17:00-19:00
ANIMA ZAITEZ!!!

609 75 47 99 Usurbil

Gozo joan zen Erle Eguna

Erle Egunak gero eta oihartzun handiagoa du eztizaleen artean. Igande honetako azokan ikusi da ondo sustraitu den ospakizunean bilakatu dela. Ezti-egileen artean, gainera, ondo estimatua dagoen eguna da. Lehiaketetan, nafartarrek ekarritako eztiak izan ziren nagusi.

Milalore klaseko eztiaren artean, Patxi Franco andoaindarrak izan zen lehen saria eraman zuena. Asentsio Karrera amezketarra bigarren izan zen.

Lore bakarreko ezti ilunen artean, Miren Lizasoain (Lesaka) izan zen nagusi eta Oieregi (Nafarroa) herriko Ramon Yeregi bigarren postuan geratu zen.

Lore bakarreko ezti argien artean ere, Miren Lizasoain izan zen lehen saria eraman duena. Eta bigarren saria Federico Villafrancok (Iruñea) eskuratu zuen.

Enkantean, Juanjo Mendioroz gastronomia kritikariak eraman zituen ezti sarituak, 2.250 euro eskaini ondo-



ERLEEK EKARRI ZITUZTEN SARIAK.

ren. Berarekin batera, hainbat sukaldari aritu ziren epaile lanetan: Ruben Trincado, Alberto Elorza eta Josean Eizmendi. Esther Esparza aktorea hantxe izan zen beste behin ere.

Gozogintzan, Dolores Borda

Gozogintza lehiaketan, Dolores Bordak eraman zuen lehen saria eta

Sorkunde Portularrume bigarren sailkatu zen.

Azokan, taloak eta txistorra dastatzeko aukera izan zen eta DBHko ikasleek postreak jarri zituzten salgai. Dema plazan jarritako saltokietan ere jende asko ibili zen.

Goiz partean, marrazki lehiaketa egin zen.

Abenduaren 9an irekiko da Santo Tomaseko babarrun eta sagardo lehiaketetan izena emateko epea

Santo Tomaseko azoka bi aste berru izango da, abenduaren 19an igandea. Babarrun zein sagardo lehiaketetan parte hartu nahi dutenek, ordea, alde aurretik eman beharko dute izena. Abenduaren 9an irekiko da bi lehiaketa horietan izena emateko epea.

Sagardo lehiaketa

- Partehartzaile bakoitzak 8 botila ekarri beharko ditu, eta botila bakoitzeko 1,5 euro ordainduko zaio.

- Sagardoa NOAUA!ko bulegora ekarri behar da, alde aurretik. Izena emateko egunak: abenduaren 9tik 16ra

(biak barne). Gogoan izan sagardote-giak ez direla lehiaketa honetan sartuko.

Lehen saria, 150 euro eta txapela; bigarren saria, 90 euro eta hirugarren saria, 50 euro.

Babarrun lehiaketa

- Partehartzaile bakoitzak kilo bat babarrun ekarri behar du. Eta babarrun kiloagatik, 12 euro ordainduko zaio.

- Babarruna NOAUA!ko bulegora eraman behar dira, alde aurretik. Abenduaren 9tik 16ra (biak barne).

Lehen saria, 150 euro eta txapela; bigarren saria, 90 euro eta hirugarren saria, 50 euro.



AZOKA ABENDUAREN 19AN IZANGO DA.

Abenduaren 18an, jostailu erabilien azoka

A benduaren 18an Jostailu Erabilien IV. Azoka egingo da frontoi inguruan. Horretarako herritarren laguntza eskatu nahi dute antolatzaileek, Hitz Aho guraso elkarteko kideek. “Zuen etxetan erabiltzen edo behar ez dituzuen jostailu, ipuin, liburu, CDrom eta antzekoak badituzue, orain duzue horiei guztiei erabilpen berri bat emateko aukera”.

Azoka eguna baino lehen, jostailuen bilketa egingo da Sutegin. “Abenduaren 15etik 17ra bitartean, 17:00etatik 19:00etara, Sutegiko erakusketa aretoan izango gaituzue ekartzen dizkiguzuen jostailuak jasotzen. Biltzen dugun guztia abenduaren 18ko azokan ikusgai jarriko dugu”, adierazi dute Hitz Ahokoek, azokaren antolatzaileek.

HITZ AHO

“Jostailuei erabilpen berriak ematea eta haurren artean ohitura hori zabaltzea da helburu nagusia”

Truke sistema

“Azokara hurbiltzen zaretenak, egun horretan etxetik ekartzen dituzuen jostailuak guk azokan jarritakoekin trukatu ahal izango dituzue. Jostailuei erabilpen berriak ematea eta haurren artean



HITZ AHOKO ARDURADUNAK, IAZKO AZOKAN EGINDAKO ERRETRATUAN.

ohitura hori zabaltzea da helburua”, adierazi dute Hitz Ahokoek, gurasoei helarazi zaien gutunean.

Azokaren bukaeran geratzen diren jostailuak, beharra duten erakundeetara bideratuko dira.

Kontuan izatekoak

Ekimen honetan parte hartze-ko, baldintza hauek bete behar dira:

- Jostailuak osorik egon behar dute. Norberari hartzea gustatuko litzaiokeen moduan.
- Bilketa egunetan jasotzen dena musutruk emango da. Horren truke, nahi izanez gero, txartel bat

jasoko du bakoitzak azoka egunean beste jostailuren batengatik aldatzeko.

- Azoka egunean jostailuak trukatzeko 8 urtetik beherakoek arduradun batekin parte hartu beharko dute.
- CDrom, DVD eta antzekoek jatorrizkoak izan beharko dute.

Abenduaren 19an, Adarrara mendi bizikletan

A ndatza inguruan ibili ziren aurreko Aigandean eta abenduaren 19rako beste iteera bat antolatu dute: Adarra mendiarri bira. Zubietarrek honako kronikatxoa bidali dute NOAUA!ra: "igandea, goizeko 09:00ak, 0°C-1°C, Zubietako plaza... 13 txirrindulari [ero] elkartu eta Andatza aldera jo zuten. Txokoalde pasa eta lehen aldapan Xantik zulatua izan zuen eta zulatu hori baliatu zuen Joxemik erasoia jo eta erritmo bizia ezarri Ziortzako gainera lehena iristeko. Denetarik izan zen Ziortzarako igeroan,

izan ziren aldapa ito beharrean igo zirenak, izan ziren patxada ederrean zihozenak, elkarri erasoka aritu zirenak, kameralari pare bat ere bai tartean... Ziortza gainean berriz ere denak elkartu, arropa guztiak jantzi, Andatzako pista lokaztuak atzean utzi eta, Gazume elurrez zuritua aurrean zutela, Zizurkilera joan ziren, gero errepidez ziztu bizian eta euripean Zubietara itzultzeko”.

Dutxa beroaren ondoren, Mikel Berasategi chef-ak prestatutako bazkari oparoarekin indarrak berreskuratu zituz-



TXIRRINDULARIAK, ATSEDENALDIAN.

ten. Hurrengo hitzordua, abenduaren 19an goizeko 8:30ean, Zubietako plazan. Adarrara joko dute, animo beraz!

Hurbilagoren eskutik, "San Silvestre" lasterketa 4 kilometrokoa, herri merkataritza eta ostalaritza biziberritzearen alde

2010a kirola eginez agurtzeko aukera izango da Usurbilen, lehen aldiz San Silvestre herri lasterketa antolatu baitu Hurbilago Elkarteak. Lehiakortasunik gabekoa, baina bai aldiz kaxko inguruan jai giroa sustatu nahi duena. Abenduaren 31n ospatuko den ekimenerako izen ematea zabalik dago jada.

Gazte eta helduek parte hartzeko moduko kirol ekimena prestatzen dabil-tza Hurbilago Elkarteak, kirola eginez 2010. urtea agurtzeko. Lehen San Silvestre Hurbilago lasterketa antolatzen ari dira, Urtezahar egunerako, abenduaren 31rako (17:00etatik aurrera).

ADIN GUZTIENTZAT

"Abenduaren 31n,
arratsaldeko 17:00etan
hasiko da lasterketa"

Lau kilometroko luzera izango du, Mikel Laboa plazan hasi eta bukatuko den ibilbideak. Kaxkoa alderik alde zeharkatuko du herri lasterketak. Antolatzailerik zehazten dutenez, jai kutsuko lasterketa izango da, lehiakorta-



BAXURDE TXIKIKOA BAINO
LABURRAGOIA IZANGO DA: 4 KM.

sunik gabekoa. Partaideen artean ez da dortsalik banatuko, eta amaieran, sariak zozketatuko dira lasterkari guztien artean.

Izena emateko bi modu izango dira, biak ere doan; Hurbilago elkarteak establezimenduetan izena eman ahal izango da, baita Internet bidez ere, noaua.com web orrialdean sartu eta bertan funtzionamenduan egongo den lotura batean klikatuta.

Hurbilagoko kamiseta opari

Abenduaren 15a baino lehen izena ematen duenak, lasterketa egunean ez du jantzi beharreko kamisetaz arduratu beharrik izango. Partaide bakoitzak Hurbilago Elkarteak kamiseta opari gisa jasoko du, Hurbilagoko edozein establezimenduetara joanda.

Hurbilago Txartela, dagoeneko erabilgarri

Hurbilago Elkarteak atera duten erosketa txartela da eta Hurbilagoko edozein establezimenduetan eskatu daiteke. Eskuorri bat bete behar da datu pertsonalekin. Txartela egiteagatik bost euroko deskontua jasoko du bezeroak establezimendu horretan. Familiako kide bakoitzak txartel bana izan dezake.

Behin txartela eskuratuta, abendu osoan erosketak Hurbilago txartelarekin ordainduta, %5eko deskontua izango da Hurbilago elkarteak establezimendu guztietan.



HURBILAGO ELKARTEKO
DENDETAN ESKURA DAITEKE.

Eskulan tailerra euskaltegian

Ostiral honetan, abenduaren 3arekin batera ospatuko den Euskararen Egunaren baitan, eskulan tailerra antolatu dute AEK-Etumeta euskaltegiek. Besteak beste, kaxka nola margotu ikasteko aukera egongo da. Tailerra irekia izango da, edonork har dezake parte.

Ostegun honetan burutuko da tailerra, goizez, 9:30etik 11:30era bitartean. Antolaketa erraztu asmoz, tailerrean parte hartzeko asmoa dutenek, aldeztatik honako telefono zenbakira deitu eta izena ematea eskatzen



AEK-ETUMETA EUSKALTEGIKO
HAINBAT IKASLE, ARTXIBOKO IRUDIAN.

dute antolatzailerik: 943 372 001. Telefono zenbakia, euskaltegiakoa da.



Pasa den larunbatean, Kantu Taldearen jirarekin bat egin zuten Bertso Eskolako kideek. Patxi Seguirolaren aldeko elkarretaratzean aritu ziren kantuan, bide batez. Agerialden bertso-kantu afaria egin zuten ondoren, eta 90 lagun batu ziren. Igande honetan, Durangoko Azokan arituko dira, Euskal Herriko beste kantutaldeen batera.

Sohütako ikastolaren aldeko kanpaina antolatu du Nafartarrak kultur taldeak

Aurreko astean iragarri genuen bezala, gabonetako otarrak prestatu dituzte Sohütako Eperra ikastolako gurasoek. Etekinak, ikastola handitzeko izango dira. Nafartarrak taldea ari da herrian otarren salmenta bideratzen. Bide batez, Iparraldearekin lotutako beste ekitaldi batzuk ere antolatu dira datozen egunetarako.

Xiberua, hizpide

Xiberuari buruz dugun jakinmina asezteko modukoa izango da abenduaren 9rako antolatu den hitzaldia. Zuberoako egoera ekonomia, hizkuntza-ren presentzia... izango dira hitzaldian aztertuko diren kontuak.

Iritzia jaso ez ezik, iritzia emateko aukera ere izango da.

Nafartarrak taldeak antolatu duen hitzaldia Sutegin izango da, 19:00etatik aurrera. Eguna, abenduak 9 osteguna.

ABENDUAREN 10EAN

“Euskaldunok historian zehar izan ditugun izenak aztertuko dira hitzaldi batean”

Euskaldunak eta deiturak

Abenduaren 9an izango da Zuberoari buruzko hitzaldia. Biharamunean, eztabaida deiturari buruzkoa izango da. Eta deituraren bitartez, bestelako elementuak ere aztertuko dira. “Historian zehar, euskaldunak izen desberdinekin izan gara izendatuak: ager vasconum, saltus vasconum; Vasconia, reino de Pamplona, Navarra, Euskadi, Euskal Herria... Baina izen hauek esanahi diferenteak dituzte; ez dira berdinak: koka-pena, deskribapena, izen etnikoa, Estatuaren izen propioa, autonomiazko izen instituzionala. Nola ikusten dugu, edo ikusi nahi dugu, gure errea-



JEAN MIXEL BEDAXAGAR SUTEGIN ARITUKO DA DATORREN ASTEAN. ANTZERKI TALDE BATEKIN BATERA HURBILDUKO DA.

litatea? Besteen begietatik (begi interesatuetatik)? Edo ikuspegi propio batetik?”. Hori izango da abenduaren 10eko hitzaldiaren abiapuntua. 19:00etan, Sutegin.

Abenduaren 11n, kantaldia eta antzerkia

“Auñamendi” diskoa argitaratu zuen iaz Jean Mixel Bedaxagarrek. Laguntzaileen artean, Mixel Arotze aritu zen. Abenduaren 11n, Sutegin izango dira elkarrekin.

“Auñamendi” (Elkar) bakarkako hirugarren lana du Jean Mixel Bedaxagar txirulari eta kantari zubero-tarrak. Herri kantutegian oinarritzen da diskoa. Baina badira diskorako Bedaxagarrek berak espreski idatzitako hiru kantu.

Musika emanaldiaren tartean, “Battitta lau ttitta” antzerki taldeak bi esketx antzeztuko ditu.

Abenduaren 11n larunbata, Iparraldeko musikariak eta antzezleak ezagutzeko aukera aparta izango dugu Sutegin. 19:00etan hasiko da, eta sarre-ra 5 eurokoa izango da.

Otarrak eskatzeko azken egunak

Bi otar daude aukeran. Hori bai, Eskaera aste honetan bertan egin behar da. Eta behin eskatu ondoren, otarrak abenduaren 9tik aurrera banatuko dituzte.

Ahuski otarrea, 36 euro

Ardi gazta (1kg), Eztia gaztainatzea (500gr), Patea ahate gibelarekin egina (200gr), Bizkotxo poltxa bat “artesanala” (200gr).

Irati otarrea, 49 euro

Ardi gazta (1kg), Patea ahate gibela-rekin egina (200gr), Bizkotxo poltxa bat “artesanala” (200gr), Axoa txahal-ki xehatua saltsan (750 gr).

Eskaerak egiteko zerrendak jarri dira Bordatxon eta Txiribogan. Nafartarrak taldeko kideekin harremanetan jarri bestela edo NOAUAra deitu telefonoz eta izena eman (943 360 321). Abenduaren hasieran banatuko dira otarrak.

Herritarrak, Donostiako Maratoian

GERICA JUAN, IÑAKI	2:50:07
RODRIGUEZ CUENCA, F. JAVIER	3:21:53
SOROA DEL CAMPO, MIKEL	3:24:22
OTAMENDI LIZARAZU, AITOR	3:27:31
IZAGUIRRE GODINEAU, TITO	3:27:50
AGOTE GOYARAN, JUAN MARI	3:35:01
SASIAIN MARTINEZ, PELLO	3:35:19
LOPEZ LOS SANTOS, IÑIGO	3:56:56
BENGOETXEA ZUBIRIA, IÑAKI	4:03:36
MARIN ISASA, PATXI	4:04:06
PORTU AZPIROZ, JOXEMARI	4:10:15
ANDRES ZUBIRIA, MOISES	4:16:58

Iturria: www.maratondonostia.com



ARGAZKIAK: CARLOS JIMENEZ.

Ipuin kontalaria udal liburutegian

Beste behin ere, Miriam Mendoza ipuin kontalaria udal liburutegian izango da. Honakoan, HH5 mailako haurrei zuzendutako saioa eskainiko du. Euskal ipuin tradizionalak kontatuko ditu baina baita gaur egungo idazle euskaldun zein atzerritarren hainbat ipuin ere. Gogoan izan hitzordua, abenduaren 13an astelehena, arratsaldeko 18:00etan, udal liburutegian.



MIRIAM MENDOZA KONTALARIA.

DBH4ko ikasleen postua Erle Egunean

Erle Egunean, Dema Plazako postuetan izan ziren DBH4ko ikasleak. Euren egindako tartak eta postreak saltzen aritu ziren. Bildutako dirua ikasturte amaierako bidaiarako baliatuko dute.



POSTREAK SALTZEN
ARITU ZIREN DBHKO IKASLEAK.

txirriStra
KONTSEJUZARRA 13
943 360 466

pintxoak
ogitartekoak
piater konbinatuak

TABERNA

Otar-Goxo
Elkarguak

Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

LABE-GOXO

Andatza Mendi Talde eraberrituak, prest du aurtengo Mendi Asteko eskaintza

Hiru ikus-entzunezko emaldiez eta beste pare bat irteerez osaturiko eskaintza dakarte Andatza Mendi Taldekoek aurtengo Mendi Asterako. Abenduaren 14tik 19ra ospatuko den ekimenak mendizaletasuna ikus-entzunezkoen bidez helarazi eta irteeratan parte hartuz, sustatzeko aukera izango da. Helduei baina baita ere gaztetxoei zuzendua dago Andatza Mendi Taldetik prestatu duten eskaintza.

Duela gutxi bilgunearen ardura hartu duen antolakuntza talde berria bi aste barru ospatuko den Mendi Astea prestatzen dabil. Guztira bost ekitaldi antolatu dituzte, abenduaren 14tik 19ra ospatuko den aurtengo edizioaren barruan.

ABENDUAREN 14AN, SUTEGIN

“Usurbildar gazte batzuk
Peru koloretan izeneko
diaporama eskainiko dute”

Herritar baten eskutik estreinatuko da aurtengo Mendi Astea. Harkaitz Rezolak Peruko irudiak erakutsiko ditu, “Peru koloretan” izeneko diaporamaren bidez. Abenduaren 14an burutuko da ekitaldia.

Kirgizistaneko bidaia

Egun pare bat beranduago, Felipe Uriarteren eskutik, ordubetez “Shesheren herrialdean” murgiltzeko aukera izango du Sutegin auditoriora hurbiltzen denak; Kirgizistanerako bidaian hain zuzen. Espedizio kideek Sheshe ezagutuko dute, amarekin etxera bueltatzen ari den kirgizistandar haurra. Bidaian zehar, Lenin edota Chon-Ton mendi igoerak erakutsiko ditu Uriarteren ikus-entzunezkoak.

Espedizioa Bishkek, Kirgizistan iparraldean abiatzen da, handik Osh hiribu-



“MENDIAK ETA HERRIAK “EKO KIDEAK, TARTEAN, FELIPE URIARTE MENDIZALEA. “SHESHEREN HERRIALDEAN” IKUSENTZUNEZKOA ESKAINIKO DU.

rura jaitsi eta herrialdearen hego mendebaldeko lautadak kamioi batean gurutzatu zituzten. Ikus-entzunezkoa 2007an antolatu zen Lenin Mendiaren Nazioarteko Espedizioan grabatua dago. Bederatzi laguneko taldea joan zen bertara. Zortzik lortu zuten lehen aipaturako bi mendien gailurretara ailegatzea.

Asteburuan irteerak

Mendizaletasuna pantaila bidez ikusi bakarrik ez, ibilaldien bidez aipatu zale-tasunaz gozatzeko aukera eskaini nahi diete antolatzaileek herritarrei. Horren haritik, bi irteera programatu dituzte. Larunbatean, abenduak 18, helduentzat. Orioraino trenez joan eta gero, Usurbilera oinez bueltatzea da asmoa. Gero, bazkaritarako bilduko dira Patri jatetxean.

Egunbete beranduago, haurren txanda izango da. Udalerri inguruan ibilaldi batean parte hartzera proposatuko diete gaztetxoei. Batean zein bestean izena emateko, Sutegin bezperatan burutuko diren ekitaldien aurretik, antolatzaileek kultur etxean jarriko duten mahaira hurbildu besterik ez da egin beharko. Gune berean berritu ahal izango da datorren urterako federatu txartela.

Mendi Astea 2010

Abenduak 14, asteartea

19:00 “Peru koloretan” diaporama, Harkaitz, Egoitz, Sergio eta Aitorren eskutik, Sutegin.

Abenduak 15, asteazkena

19:00 “Manaslu”-ri buruzko emaldia Oskar Porrassen eskutik, Sutegin.

Abenduak 16, osteguna

19:00 “Shesheren herrialdean” ikus-entzunezkoa, Felipe Uriarteren eskutik, Sutegin.

Abenduak 18, larunbata

8:00 Orio-Usurbil mendi ibilaldia, Usurbilgo tren geltokitik irtenda. Trenz Oriora, eta handik oinez itzulera Usurbila. Ondoren, bazkaria Patrin.

Abenduak 19, igandea

9:00etan Ibilaldia haurrentzat.

Oharra: Sutegin burutuko diren ekitaldiak hasi aurretik, 2011ko federatu txartelak berritu eta asteburuko ibilaldietan izena emateko aukera izango da kultur etxean bertan.

Antolatzailea: Andatza Mendi Taldea.

Autobus Orduetgia

Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN

Table with columns: Donostia, Urbil, Usurbil, Orio, Zarautz. Rows show bus departure times from 06:55 to 22:15.

Larunbat, igande eta JAIEGUNETAN

Table with columns: Donostia, Urbil, Usurbil, Orio, Zarautz. Rows show bus departure times from 08:00 to 22:00.

Tren Orduetgia

Table with columns: Zarautz, Orio, Usurbil, Donostia. Rows show train departure times from 06:00 to 22:47.

06:00 Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN
07:00 Astelehenetik Ostiralera eta JAIEGUNETAN
Astelehenetik eta Ostirala (11/06/19 - 11/09/11)
larunbat, igande eta Jaiegunetan
www.euskotren.es @ 902 54 32 10

Ospitalera autobusak astelehenetik ostiralera (lanegunak)

Table showing bus routes to Ospitaleak (Hospital) and from Ospitaleak to Usurbil. Columns include Ospitaleak, Lasarte, Zubieta, Usurbil with departure times.

LURRALDEBUS ASTIGARRAGA-HERNANI-LASARTE-USURBIL

Table with section header 'Irteera Usurbil' and rows for 'ASTELEHEN-LARUNBATERA' and 'IGANDE-JAIEGUNETAN' with departure times.

Table with section header 'Irteera Astigarraga' and rows for 'ASTELEHEN-LARUNBATERA' and 'IGANDE-JAIEGUNETAN' with departure times.

TSST autobusak ZUBIETA-LASARTE

Table showing bus routes between Zubieta and Lasarte. Includes section 'LANEGUNETAN' and 'JAIEGUNETAN' with departure times. Also includes a 'BUS-TAXI' section.

Agenda !!

Abenduak 9 osteguna
19:00etan, "Zertan da Xiberua",
hitzaldia Sutegin.

Abenduak 10 ostirala
19:00etan, "Vasconia, Euskadi,
Euskal Herria, Navarra...", hitzaldia
Sutegin.

Abenduak 11 larunbata
19:00etan, Musika eta antzerki ema-
naldia Iparraldetik, Sutegin.

Abenduak 13 astelehena
18:00etan, ipuin kontaketa, udal
liburutegian, Sutegin.

Abenduak 14 asteartea
19:00etan, "Peru koloretan" ikus-
entzunezkoa Sutegin.

Goardiako farmaziak

Abenduak 2, osteguna
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Abenduak 3, ostirala
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Abenduak 4, larunbata
Oa, Kontseju Zarra 11 Usurbil
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Abenduak 5, igandea
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Abenduak 6, astelehena
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Abenduak 7, asteartea
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Abenduak 8, asteazkena
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Abenduak 9, osteguna
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Abenduak 10, ostirala
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Abenduak 11, larunbata
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Abenduak 12, igandea
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Abenduak 13, astelehena
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Abenduak 14, asteartea
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Abenduak 15, asteazkena
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Abenduak 16, osteguna
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Abenduak 17, ostirala
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Abenduak 18, larunbata
Oa, Kontseju Zarra 11 Usurbil
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Abenduak 19, igandea
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Chupa farmazia (22:00-09:00),
Kardaberaz, 48, Hernani (943 551 793)
**Usurbilen, soilik eguerdina arte*

Usurbildarren lanak eskuragarri Durangoko Liburu eta Disko Azokan

Larunbat honetan zabalduko ditu
ateak Durangoko Euskal Liburu
eta Disko Azokak. Ohi bezala,
bost egunez produktu ugari topatuko
ditu bertaraten denak. Tartean, usurbil-
darrenak. Aurten, Mendeku Itxua talde-
koen eta Yolanda Arrietaren azken lanak
Durangon izango dira.

Azaroaren 19an aurkeztu zuten jendau-
rrean "Piztien Pare", hamar abestiz osatu-
riko azken lana. Mendeku Itxuaren disko
berria Durangoko Azokan izango da sal-
gai, Gor diskoetxearen gunean. Azoka
ondoko Ahotsenea gunean solasaldia
eskainiko dute, abenduaren 8an, eguerdi-
ko 14:30ean.

Arrietaren saioa Ahotsenean
"Nitaz ahaztu dira" izeneko Yolanda
Arrietaren azken ipuina ere eskuragarri
izango da Durangon. "Neskatilak" izene-
ko sailaren barruan argitaratu du Arrietak
lan berri hau. Erein argitaletxeko postuan
aurkitu ahal izango da.

Bestalde, Yolanda Arrietak abenduaren
5ean "Itzalpetik" album ilustratuaren
inguruko emanaldia eskainiko du



"NITAZ AHAZTU DIRA" YOLANDA
ARRIETAREN LAN BERRIA. ESKUBITARA,
MENDEKU ITXUAKOAK.

Ahotsenean, Leire Urbeltz irudigilearekin
batera, eguerdiko 13:30ean.

Durangoko Azokan hainbeste produk-
tu artean ez galtzeko edota ate joka ditu-
gun eguberrietan zer oparitu argitzen
laguntzeko urteroko gida kalean da; esku-
ragarri dago, Euskal Produktuen
Katalogoa. Joan den ostiralean gida bana
jaso zuten Udaregi ikastolako ikasleek.

Kantu Taldeen bilkuran

Euskal Herriko kantu taldeak elkarre-
kin arituko dira Durangoko Azokan.
Usurbilgo taldea ere bertako kantu-jiran
izango da. Abenduaren 5ean igandea,
eguerdiko 12:00etan.

Sutegiko erakusketa, azken txanpan

Manu Urbietta eta Tomas
Mesnaolaren margolanak eta
eskulturak ikusgai daude Sutegin.
Asteburu honetan amaituko da era-
kusketa. Bisita orduak, hauexek:
ostiraletan eta larunbatetan, 18:30-
20:00. Igandetan, 12:00-14:00.

NOAUA! astekaririk ez da izango datorren astean

Bi jai egun tarteko, datorren
astean ez da NOAUA! aldiz-
karia argitaratuko. Hurrengo alea
abenduaren 16an banatuko dugu.
Barka eragozpenak.

Abenduaren 8an, odol emaitzen eguna

Urteroko hitzordua da.
Abenduaren 8an Usurbilen
Odol Emaitzen Eguna ospatu ohi da.
Aurten, Atxega jauregian izango da
bazkaria. Izena emateko epea azaroa-
ren amaieran bukatu zen. Lehenik
meza nagusian elkartuko dira,
Salvatore elizan, eta ondoren otordua
Atxega Jatetxean egingo dute.



ERRAUSKETARIK EZ
LURRA BASERRIA HERRIA
BIZIRIK



Hator, hator...

Alkartasuna

Elkartea Baserritar Kooperatiba

alkartasuna@usurbil.com

www.alkartasuna.usurbil.com

Ugarte industrialdea 12

☎ 943 361 114


Dantolina



Abarkak, txapelak, galtzetarak...



Pazko loreak



Urmeentzako jostailuak



Ardoak



Egutegiak



Zorionak eta Urteberru on!

Urteinea Lorategia



Egun osca irekia • San Esteban auzoa • Tf: 943 362 255 • Faya: 943 366 054 • urteinea@euskaltel.net

Santo Tomas eguna ospatzeko deialdia



Noaua!k baserritar guztiak
gonbidatu nahi ditu

Herritarren sargardoa dastatzeko eta
babarrunak ikusteko aukera izango da, besteak beste.
Aurten ere lehiaketa bikaina izango dugu.



Abenduaren **19an**
igande goizez

Sagardo lehiaketa:

(Sagardotegiak ez dira sartuko lehiaketa honetan.)

Sagardoa etxean egiten duenak herriko plazara ekar dezake herritarrek proba dezaten eta gainera, lehiaketan parte hartuko dute.

Partaide bakoitzak 8 botila ekarri beharko ditu, eta botila bakoitzeko 1,5€ ordainduko zaio.

Babarrun lehiaketa:

Ezaugarri hauek hartuko dira kontuan:

- **ITXURA:** osorik edo hautsita dagoen, zimurrak...
- **KOLOREA:** zenbat eta beltzagoa orduan eta hobeagoa.
- **BERDINTASUNA:** tamainaz, kolorez...elkarren berdinak izatea.
- **DIZDIRA:** berezko dizdira beste edozein produktarekin (olio, abrilantadore...) estali edo aldatua izaten bada lehiaketatik kanpo geratuko da.
- **GARBITASUNA:** partikula arrotzik ez izatea.

Parte hartzaile bakoitzak 1Kg babarrun ekarri behar du eta 12 € ordainduko zaio.

Informazioa eta epea:

- Babarrunak eta sagardoak Noaua!ra ekarri eta izen emateko datak:

ABENDUAK 9tik 16ra (biak barne)

- Baldintzak eta gainontzeko zalantzak argitzeko deitu gure bulegora **(943 360 321)**

Sariak:

Babarrun eta Sagardo lehiaketan, ondorengo sariak izango dira:

- **1go saria: 150€ + txapela**
- **2. saria: 90€**
- **3. saria: 50€**

